Gabonetako kantak (I)

Denok dakigunez, Gabonetako folklorea oso aberatsa da eta herriko musikak ere badu zer esanik alor horretan. Kristoren jaiotza gertatu eta iragartzen duen Abenduak, Jaiotzak berak, Urte berri eta Errege egunak hainbat kantu herrikoi ematen dizkigute, bildumetan egertzen direnak eta gure herriak ahoz aho oraindik kantatzen dituenak. Ez da gai hau berria Astelenetako Orri honetan, urtoro ez bada ere askotan erabili du Juan San Martin adiskideak eta.

Gabon egun edo gaueko kantak ez dira bakarrak folklore honen barruan, aipatu dudan bezala; beraz, aro luzetxo honi ***Gabonak*** *izena dagokio eta egokiago iruditu zait sail honi* ***Gabonetako Kantak*** *izenburua ematea. Beste egunen baten Gabonetako abesti herrikoiekin iharduko naiz; eta gaur musika landuak eman dizkigun kantuak erabiliko ditut.*

Gure Eleiz nagusietako Kapel Maisu eta organistek, XVIII garren mendetik hasita, hainbat ***Bilantziko*** *utzi digute. Musiku honen betebehar bat zen Gabonetan ahotzetarako kantu bat egitea, Pedro Estorkik Bilbon 1794.eko* ***Bilantziko*** *batetan adieraztera ematen digunez:*

Urte guztijetaco
Gabon Leguia
da soñu eder baten
Canta imintia

Eta orduko musikuek ondo baino hobeto bete zuten eginbehar hau. XVII garren menderaino jota, euskerazko hitzekin aurkitzen ditugu Bilantziko batzu Madriden. Carmen Bravo Villasantek, bere "Villancicos del siglo XVII y XVIII" liburuan 1679, 1696 eta 1699ko batzu ematen dizkugu eta halako baten ikusi dezakegu testo hau:

Agur Errey galanta
Galanta Erreyna agur,
Cuando Vizcaya estabas

Qué te parece Irun?

Euskal eta erdal hitzen nahaste hau Madrideko Gorteraino jo gabe, hurbilago ere aurkitzen dugu. Otsagin abestuten zen 1933an, eta ez dakit orain ere kantatzen den, bertso hau:

Varus carus natus est
Maria beti Virjine
Verus carus natus est
Kristo sortzen duzu gaur

Hamazortzigarren gizaldia da gure herrian bilantziko landuen lekukoa. Hain aipatuak diren Barrutia eta Peñaflorida Kondea aparte utzita, Martin Oarabeitiaren "Villancicos en basquence..." Bilbon 1755an inprimatuak izan ditugu asken urteotan ezagunak, Fray Juan Ruiz de Larrinaga jaunak 1932an honen berri eman zigunetik. Baina Jon baguesek egindako ikerketa eta argitalpenari esker (Catálogo del Antiguo Archivo Musical del Santuario de Aránzazu, 1979) beste bilantziko pila bat ere ezagutzen dugu orain.

Arantzazuko Artxiboan dauden bilantzikoak musikegile hauenak dira: Arze, Axpe, Etxebarria, Eskaregi, Ibarzabal, Iribarren, Larramendi, Larrañaga, Muxika, Oruña eta Vidaurreta. Gehienak gaztelaniazko hitzekin eginak dira, baina badaude euskal bilantzikoak ere. Lehena Migel Oruñak konposatu zuena da, 1769an: ***Cer gertatzen da mendi orretan.*** *Musikegile hau Donostiako Andra Mari Basilikan Kapel Maisua zen garai hartan. Beste euskal bilantziko batzu ere egin zituen Oruñak, adibidez, 1772an* ***Aurcho baten ikustera*** *eta 1783an* ***Eguerritaco Versoac cantatu bear diranac Santa Marian.***

Beste euskal bilantziko baten egilea Fray Agustin Etxebarria dugu. 1799an ***Euquiric echean bear dezun arguia*** *konposatu zuena Arantzazuko Artxiboan dago. Gerotxoago, eta XIX garren mendean, Aita Larramendik bost euskal bilantziko egin zituen, lehena 1825an* ***Ceruco aingueruac arzayai*** *tituluakin.*

Hemeretzigarren mendean sartuak gaude eta Bilbon Nicolas Ledesmak egin zuen bezala (euskarazko zortzikoak baditu inprimatuak) Donostian ere Santestebanek Andra Mari Basilikarako egingo zituen euskal bilantzikoak edo zortzikoak, doinu eta guzti, jakina. Bilbon, Pedro Estorki Kapel Maisuaren garaian, 1815an, ***Gaboneco cantac vizcaitarrentzat*** *argitaratu ziren eta 1824an* ***Gaboneco osate edo cantac vizcaitarrentzat.*** *Orduko bilbotar euskaldunentzat ala benetan bizkaitar guztientzat eginak ote ziren Gabon Canta hauek? Bilbotik kanpo, orduan Abando ez zen Bilbo eta, inprimatu zuen Bizenta Mogelek* ***Gaboneco cantia vizcaitar guztientzat euscaldun emacume batec ateria 1819 garren urtian Abandoco eleixatian.*** *Urte berekoak dira, guti gora behera, Fray Antonio Zabalak Frantsizkotarren Komentuan kantatzeko argitaratu zituen* ***Villancicos,*** *gastelaniaz eta euskaraz.*

Aipatutako bilantzikoen doinua batzuetan ezaguna da edo ezagutu dezakeguna Artxiboetara joanaz eta beste batzuetan ezezaguna testoa baizik ez dugu ezagutu eta. Baina denak lo daude artxiboetan. Oso ezaguna da Euskalerrian 1892an Bartolome Erzilla durangoarrak musikatu zuena Balbino Garitaonaindiaren testoa hartuz: ***Mesias sarritan agindu zana,*** *orain ere gure eleizetan urtero abestuten dena.*

José Antonio ARANA MARTIJA

Riquisimo es el folklore de Navidad en el País Vasco y dentro de aquél el repertorio de canciones populares. El tema ya ha sido tratado en varias ocasiones en estas páginas por Juan San Martín, y espero en un siguiente artículo tocar también el tema popular. Pero hoy me referiré solamente a los Villancicos en euskara de autor conocido.

Como decía Pedro Estorqui, Maestro de Capilla de la Basílica de Santiago de Bilbao, en un villancico de 1794, era obligación de los profesionales adscritos a las iglesias mayores el componer un canto de Navidad para las funciones de su respectiva iglesia. Y en verdad que nuestros antepasados de aquella época cumplieron bien con su obligación. Ya en el siglo XVII tenemos en Madrid villancicos que en el texto castellano introducen frases euskéricas, según deja constancia Carmen Bravo Villasante. Esta mezcla de idiomas se da también en villancicos de nuestra tierra, como en uno recogido en Ochagavía en 1933.

La época floreciente de nuestros villancicos vascos es el siglo XVIII. Dejando a un lado las obras conocidas de Barrutia y del Conde Peñaflorida, conocíamos hasta ahora el ya famoso texto de Martín Oaraveitia, Maestro de Capilla del Convento de San Francisco de Bilbao, quien lo publicó en 1755. Gracias al trabajo de Jon Bagües conocemos ahora más villancicos en euskara que se conservan en el Archivo de Música del Santuario de Aránzazu. Durante esa época componen villancicos, allí conservados, Arce, Axpe, Echevarría, Escaregui, Ibarzábal, Iribarren, Larramendi, Larrañaga, Múgica, Oruña, y Vidaurreta. De ellos hay varios en euskara debidos a Miguel Oruña, Maestro de Capilla de Santa María de San Sebastián, el primero de los cuales es de 1769. También compuso un villancico en euskara Fray Agustín de Echevarría en 1779. Y en el siglo siguiente fue el Padre Larramendi, franciscano, quien nos dejó en Aránzazu cinco villancicos vascos, compuestos durante sus estancias en San Sebastián y Mondragón.

Durante el siglo XIX, los Maestros de Capilla Nicolás Ledesma y José Juan Santesteban compusieron también villancicos en euskara, para sus respectivas iglesias. Tenemos también en ese principio de siglo villancicos en euskara compuestos por Vicente Moguel y Fray Antonio Zabala, franciscano en Bilbao.

Pero todos estos villancicos nos han llegado sin música, o si la tuvieron (como los del Archivo de Aránzazu) duermen sus melodías en los cartapacios. Otra mejor suerte cupo al villancico que en 1892 compuso el durangués Bartolomé de Ercilla, tutulado **Mesias sarritan egindu zana** que aún se canta en nuestras iglesias durante las festividades de la Navidad.

Mogelen "Peru Abarka"

Durangaldeko Gerediaga Elkarteak bere ekintzen barruan ezer onik egiten badu, urteroko euskal liburu eta diskaren azoka da. Gainera, azoka berezi horren inguruan beste zenbait kultur gai erabiltzen ditu eta noizbehinka katalogo eta zenbait liburu argitaratu ere bai. Aurten, ***Peru Abarka****-ren faszimilezko edizio bat izan da, liburu horrek bere lehen argitalpena duela ehun urte Durangon bertan izan zuenez.*

Peru Abarkak, *egilea hil zenetik hirurogeita hamazazpi urtera ikusi bazuen argia, geroztik zazpi argitalpen ezagutu ditu oraingo honekin; aldizkarietan zatika ezagutu dituenez aparte. Hain berandu argitaratzearen arrazoia, liburua bukatu ondorean egilea hil eta zuzenki nork bultzaturik izan ez zuelako izan daiteke, baina baita ere handik laster ezagutu ziren foru galzoria, karlisten gerrate eta euskaldunon literaturaren alderako grinarik eza edo urria.*

Juan Antonio Mogel Urkitza zen bere egilea, Errioxa eta Nafarroan heuren jatorria zuten famili bateko semea. Juan Antonioren aita Bizkaiko Markinan jaio zen, gurasoen ogibidea jarraituz mediku egingo zena eta Markinako alaba batekin ezkonduz Gipuzkoako zenbait herritan medikuntzan arituko zena. Eibarren bizi zen garaian sortu zen Juan Antonio, urteak igaroaz apez egingo zena, Etxebarrian eta Markinan bertan erretore izateko eta han burutu zituen bere idazlanak.

Mogel, bere gaztelerazko lanak erakusten dutenez eta baita ***Peru Abarkari*** *egin zion hitzaurrean bertan ere, euskararen apologista haietakoa zen, eta neurri batean hortik joan zen* ***Peru Abarka*** *ere. Elizgaiak erraz erabili zituen, bai gipuzkeraz eta bai bizkaieraz, baina* ***Peru Abarka,*** *elkarrizketen bidez bere garaian egunoroko bizitzan beharrezko ziren zeregin edo lanbideetan euskararen gaitasuna erakutsi nahi zuen. Eta, nere ustez, saio horren garile irten zen. Horregatik, euskal literaturan ezagutzen diren liburutik interesgarrienetako bat dugu. Literaturazko balioez gainera, historia eta etnografiazko balioak ditu.*

Liburua elkarrizketaz agertzearen ideia Luis Vives-engandik hartu zuen, baina gaiak eta mintzairak ez dute harenakin zer ikusirik. Gainera, Juan Antonio Mogel Ilustrazioaren azkenaldikoa genuen eta liburuak neoklasiko egitura du.

Bizkaiera literaturan guti landua zenez, bere obra horren hizkeran bada nolabaiteko trakestasuna, batez ere joskeraz. Baina, hala ere, azalpen biziak ditu eta pasarte asko atseginez irakurtzekoak dira. Durangon liburu aurkezpenez izan genuen mahaiaurrekoan, Mogelen lana aurrerakoitzat jotzen genuen ala ez galdetu ziguten. Galdera latza benetan, alde askotatik begiratzekoa denez gero. Alde batetik, Mogel, garai hartako euskalari jakitunen artekotzat har genezake. G. Von Humboldt berak ere hala aitortu zuenez; bestetik, fedea ekintzekin erakusten zekien gizona genduen, J. Garatek ongi azaldu zigun bezala. Baina inondik ere ez zen aurrerakoia. Europako kultur mugimenduan eragina mende erdi bat beranduago zeraman. Erromantikotasuna indartzen zen garaian ilustratuen lehen mailetan agertzen denez. Bestalde, bere apaiztasunagatik behar bada, baserritarra zen euskaldun arkadia jatorraren eredu eta kaletarra ohitura onak endakatzearena. Peru da basartetik sortutako jakitun ondradua eta Maisu Juan zalantzazko jakitun eta gizon bihurria. Bata guztiz ona eta bestea hala-holakoa. Idealizatze horren ondore, baserritarrak dena daki, anatomia ondo ezagutzetik olagizonen teknikak zehaztasunez ezagutzera arte. Horacio-ren idea dakar ***Rusticus abnormis sapiens, crasseque Mineraba.*** *Hau da, baserritar arrunta jakintsu, eta Minerba jakituna arruntki. Horrek bedorrek aitortzen du zer nolako eritziak zituen.*

Gainera, bere hertsitasunagatik zenbait prolema izan zituen Inkisizioaren aurrean, alde batetik berak doktrinaren bat salatzez eta bestetik argikusle edo irudikor agertu zelako arimazain eginkizunetan. Hori zela-
ta, aitortzetatik kendu zuen
azken urteetan. Horduan hartu
Peru Abarka *idazteko beta.*

Peru Abarka *eta zenbait ele*
ruz aparte, alegiak ere idatzi
Lehenak bere iloba Bizentare
onak *(1904) liburuan ageru*
gero Juan Mateo Zabala eta
Manterolaren lanetan ere ba
nik ***Ipuiak*** *(1907) saileaan eta*
Jon Kortazarrek bildu ditu Fo
argitara berri den lan batean.

Galdutzat jo zen hiztegia bere
Villasantek aurkitu zuen Aran
Añibarro zenaren paperen arte
Herri Lagunen Errel Elkarte
dizkarian argitaratu zuen (Bol
Sociedad Vascongada de los A
del Pais, XX, 1964).

Nogelen liburuen artean nagu
den ***Peru Abarka*** *honi ere edizi*
tiko bat ongi letorkio. Hone
argi jakin beharrezkoa ida
zaigu orain arteko argitalpen
esku-izkributan oinarritzen
1881ekoa Zarauzko frantziskot
tan gordetzen den egilearen
esku-izkribu jatorrean eta bigarr
1899koa, lehen Azkuek eta
Krutwig-ek duen esku-izkribu
kopia batetik egina. Honegatik,
diaga elkarteak, jatorrizkoa
lehen argitalpenaren arabera
hik eskuratzeko aukera ema
Gainera, A. Zelaietaren hitzaur
du irakurlearen lagungarri.

Juan SAN MAR

Entre las actividades cultura
la Asociación Gueredíaga de
Amigos del Duranguesado, la
importante, sin duda alguna,
feria anual del libro y disco
que organiza en Durango. Ade
con tal motivo, sabe celebrar c
de conferencias y coloquios que
nen su efecto en nuestra socie
También edita catálogos de las o
a la venta y en ocasiones libros
lletos. Entre estos recuerdo un c
cionero, una monografía local y
guna otra publicación. El pres
año, con motivo de cumplirse el
tenario de la primera edición
Peru Abarka de Moguel, que vi
luz en el mismo Durango, los d
Sociedad Gueredíaga han hecho
edición fascimil de la primera.
ha constituido un gran acierto p
que en el mercado del libro se v
sintiendo esa necesidad, pues las
timas se habían realizado basánd
en la segunda edición y entre a
hay una diferencia sensible. Ap
de los diferentes prólogos, la edi
príncipe se hizo sobre el manus
del propio autor que se conserva
el convento franciscano de Zar
(donde entregó un sobrino del au
y la segunda está hecha sobre
copia vertida por un amanuense

Juan Antonio Moguel, ademá
varias obras religiosas, es autor
fábulas en vascuence, y en caste
de algunos trabajos apologéticos
torno a las teorías vasco-iberi
Pero de entre todas ellas destaca
su originalidad **Peru Abarka**. Es
obra de la Ilustración que nos ll
con algún retraso. Está escrita a
les del siglo XVIII, y tal vez co
zos del XIX. El autor falleció
1804. Su principal objeto era dem
trar que el euskara era capaz para
normal desenvolvimiento de las
cesidades cotidianas, incluso
temas elevados o dificultosos, y
coge en diálogos entre un rústico
litario y un "barbero" (cirujano
pensamiento y las formas de la
de la segunda mitad del siglo XV
Un libro curioso e interesante, q
su valor literario une el histór
etnográfico. Los personajes co
dran a la idea de Horacio: **Rust**
abnormis sapiens, crasseque Min
(El rústico excelente, sabio,
sabia Minerba, muy estúpida)
que al autor no le muestra nada
gresista, poniendo de sabio al rús
Peru y ridiculizando al elemento
bano en la persona del Mae
Juan. Ello no quita el interés
libro, y la Asociación Gueredíag
tenido un gran acierto en ofrec
en fascimil la edición príncipe,
lleva un prólogo orientador
Angel Celayeta.

EVSKO JAVRLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA

FILME-GIDOIAK INGELESETIK EUSKARATZEKO
ITZULTZAILEAK
BEHAR DIRA

BALDINTZAK
a) C.O.U. edo baliokidea den ikasketa agiria gutxienez.
b) Euskaltzaindiaren "Euskararen Gaitasun Agiria" (D titulua) edo baliokidea.
c) Itzultzaile-gaitasuna neurtzeko burutuko diren frogak gainditzea.

OHARRA
— Ingelesaz gainera, beste hizkuntza modernoen ezagupena ere kontutan hartuko da.
— Interesatuek bidal bitzate "curriculum vitae" eta goian aipaturiko agiriak, urtearen azkena baino lehen, honako helbidera:

IRRATI-TELEBISTA ESKOLA
Prim kalea, 7
DONOSTIA